

‘Beltxa’-ren ‘Gu ta gutarrak’ ipuina berrargitaratu dute Zizurkilen

Hernandorena kultur elkarteak Magdalena Moujan Otaño ‘Beltxa’-k 1968an Argentinan idatzi zuen ipuina berreskuratu du eta bere osotasunean irakurtzeko moduan jarri du // 4

Lehenengo parte hartze ordenantza garatuko dute Tolosan

Tolosatzenek eman duena aurkeztu du udalak, eta 2019.urtera begira sortu nahi du ordenantza, eta baita udal departamentu berri bat ere // 2

Mendi ibilaldiarekin hasiko dute kultur astea Abaltzisketan

Bigarren urtez antolatuta dute, eta igandean herriko mugak ezagutuz hasi eta Txerri Festarekin amaituko dituzte ekitaldiak hilaren 29an // 6



TOLOSA

T+T, BI HERRIEN ARTEKO ZUBI

Targazki taldeak antolatuta Tolosa eta Tafalla herriak lotuko ditu argazki erakusketa batek, Aranburu jauregian; bihar zabalduko ditu ateak 30 gai ardatz hartuta osatu duten erakusketak, eta urtarrilaren 12a bitartean egongo da // 3

ITZEA URKZUARSUAGA

Gabonetako Zozketa
1.000€
Saria

125€ko 8 opari txarleen
Zozketa
urtarrilaren 8an
6 hilabeteko epea

2019ko mahai egutegiak eskuragarri.
zatoz zurearen bila

San Esteban, 20 Tolosa 20400



Joseba Ormazabal eta Garikoitz Lekuona, Tolosatzen parte hartze prozesuaren xehetasunak azaltzen. I. URKIZU ARSUAGA

Lehen Parte hartze ordenantza sortu nahi du Tolosako Udalak

Tolosatzen parte hartze prozesua hirugarrenez osatu dute, eta 2019. urteko aurrekontuan txertatuko dituzte bertan mamitutako zenbait proiektu

Itzea Urkizu Arsuaga

Tolosako Udalak lehenengo parte hartze ordenantza garatzeko asmoa iragarri du, 2019ko urte politikoari begira. Datorren urteko aurrekontua onartzearekin direla, udalak plazaratu egin nahi izan ditu Tolosatzen parte hartze prozesu-

ko hirugarren aldiak emandakoak, eta agerraldia egin dute, horretarako, Joseba Ormazabal Herriarrekiko Harremanak, Partaide-tza eta Informazioaren Gizartea batzordeko zinegotziak eta Garikoitz Lekuona udaleko parte hartze teknikariak. Horrela, ordenantza berriaren proiektua lan egiteko modu hori «sendotzeko» pausotzat jo dute.

Hirugarren Tolosatzen berezia izan da, besteak beste, arrazoi batengatik: «2019ko aurrekontuari begira, programazio integral bat osatu dugu, eta herritarrek parte hartzeko aukera izan dute, hitzor-

duetara bertaratz nahiz telematikoki».

Joseba Ormazabal zinegotziak azpimarratu du «Tolosako gizartea oso parte hartzailea» dela, urte osoan barrena eta, bere ustez, Tolosatzen proiektuak «norantza bat» ematen dio herritar eta eragile horien guztien parte hartzeari: «Zeharkako begirada bat eskaintzen du eta, udaleko sailen, herritarren nahiz eragileen ikuspegiei, herri eta komunitate ikuspegia eskaintzen die programazio integralak».

Udalaren iritziz «pauso garrantzitsua» izan da parte hartze prozesua udal gai guztietara begira di-

seinatu izana, eta hurrengo urtean hori mantendu eta indartu nahi dute. Batetik, udazkenean antolatutako parte hartze programa udaberrian ere prestatuko dute eta, bestetik, udal departamendu berri bat sortzeko lanean dihardute: Komunitatea eta Gobernantza. «Orain arte, udal langileen lan talde batekin kudeatu dugu gardentasuna oinarri duen lan egiteko modua, baina, uste dugu, izaera propioa merezi duela horrek guztiak».

Horrela, beraz, Komunitatea eta Gobernantza udal departamendua osatze bidean da eta, Garikoitz Lekuona udal teknikariare-

kin batera lan taldea osatzeko, enplegu plana baliatuko du Tolosako Udalak: «Departamentu horren ardura izango dira parte hartzea, plangintza estrategikoen kudeaketa, gardentasuna, herritarrekiko harremanak eta senide-tzeak nahiz kanpo harremanak».

ZUMARDI TXIKIA, GENEROA ETA INKLUSIOA, BESTEAK BESTE

Garikoitz Lekuona teknikariak nabarmendu du saio «intentsoak» izan direla, aurrekontuari begira. Aurrez garatzen hasitako proiektuen inguruko saioak egin dituzte, batetik, eta 2019ari begira lan lerro berriak proposatzeko

'Komunitatea eta Gobernantza' udal departamentua sortuko dute 2019. urterako

saioak, bestetik; 17 saio horietan, 153 herritarrek parte hartu dute saio presentzialetan, eta 20 pertsonak helarazi dute beren iritzia.

Tolosarrek lau sail nagusiri begira – pertsona, hezkuntza eta kultura, ingurumena eta lurralde antolakuntza eta garapen ekonomikoa – egin dituzte proposamenak eta, horiek bildu eta gero, udal teknikariak eta politikariak galbahea pasatzen dihardute, 2019ko aurrekontuari begira. Udal gobernauak datozen egunotan iragarriko ditu, hurrengo urterako asmoak.

Dena den, honakoak dira Tolosatzen egitasmoan gehien nabarmenduriko gogoak: behar bereziak dituztenen topalekuak sortu, herri irisgarriago eta inklusiboago baten alde; Tolosako euskararen eta sormenaren ikur izatea; gazteriaren beharrak aintzat hartzea; generoaren zeharkakotasuna indartzea; Zumardi Txikiko espazioarekin zerbait egitea; eta aliantza publiko-pribatuak garatzea, bai hezkuntzari, bai ekintzailetasunari begira. Azkenik, hezkuntza mahaia sortzeko ideia ere prozesuan sortu zen, eta jakinarazi dute jada martxan direla, foroa gorpuzte lanetan.

egin zioten eskualdeko hainbat feministak, baina 2018an barrena garatu dute asmoa gorpuzteko ibilbidea.

Horrela, Tolosako Udalak 20.500 euroko inbertsioa egin du orain arteko parte hartze prozesuan eta, iragarri dutenez, 2019ari begira, aurrekontuan 28.000 euroko ditu poltsa bideratuko dute Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua martxan jartzeko.

Emakumeen etxeko azken bilera irekia, gaur

I. Urkizu Arsuaga

Tolosaldeko Emakumeen Etxea oso gertu dago, ideia izatetik ideia gorpuztera pasatzeko, eta gaur izango da bigarren faseko azken bilera irekia. Hitzordua 19:00etan jarri dute, Tolosako

udaletxeko pleno aretoan, eta bertaratu nahi duten emakume guztiak deitu dituzte bilkurara. Besteak beste, etxea erabat definituko dute, eta erabaki garrantzitsuak marraztu.

Eskualderako emakumeen etxe bat sortzeko bideari aspaldi



IRAGARKI LABURRAK
Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.
Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en



T+T erakusketa Aranburu jauregian egongo da ikusgai, bihartik urtarrilaren 12a bitarte. I.U.A.

Mugi Tolosako partaideen irudiak, horma egutegi batean

Ekimena gehiago ezagutarazteko eta belaunaldien arteko elkargune izateak duen aberastasuna bistarazteko helburuz atera dituzte egutegiak

Erredakzioa Tolosa

Mugi Tolosa ekimenak bere V. edizioa abiatu zuen urrian eta asteazkenero, gazte zein heldu, Tolosan barrena ibilbideak egitera ateratzen dira. Ikasturteko lehen saio hauetan, batz bestea, ia 200 pertsona inguru atera dira aste-oro. Orain, urtea amaitzeaz dela eta berria hastear, bigarrenegutegi bat osatu dute. Ekimena gehiago ezagutarazi eta belaunaldi ezberdinen elkargune izateak duen aberastasuna bistarazteko asmoa du ekintza txiki horrek. Guztira 1.000 ale kaleratu dituzte. 2018ko saio ezberdinetako argazkiek osatzen dute Mugi

Tolosaren bigarren horma egutegia, protagonista parte hartzaile zein boluntarioak izanik. Hain zuzen, parte hartzaile guztien artean banatu zituzten atzo, egutegiak.

Udalak gogoratu du ekimena herritarrei zabalik dagoela, eta nahi duen orok duela ibilbide osasuntsu horietan parte hartze-ko aukera. Asteazkenero biltzen dira, 10:30etan eta 11:00etan, Zerkausion.

Egun bakoitzean antolakuntza, elkarte ezberdinen eta udalaren artean elkarbanatu da. Aurten inoiz baino eragile gehiago dira Mugi Tolosaren parte, 17, udalarekin batera.



Egutegiak banatu zituzten atzo, Zerkausion. ATARIA

Tolosa eta Tafalla lotuko ditu argazki erakusketa batek

Targazki taldeak antolatutako T+T erakusketa bi herrien arteko zubi izango da, 30 gai ardatz hartuta; ostiraletik urtarrilaren 12ra bitarte zabalik izango da

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

Targazki taldeak T+T erakusketa antolatu du, elkarlanean, Tafallako Higuera argazki taldearekin, eta Aranburu jauregia atonduko dute, proiekturako bereziki egindako argazki sortarekin. Erakusketa gunean bertan aurkeztu dute egitasmoa, Targazki-kideek eta Patxi Amantegi Tolosako Udaleko ordezkariak eta, aitortu dute, «herri honetan gauza on guztiak bezala», bazkari baten bueltan sortu zela Tolosaren eta Tafallaren arteko lotura egiteko ideia.

T+T proiektua «hilabetetako lana» izan da bi argazki taldeen-

tzat, izan ere, bi herriek komunean dituzten ezaugarriak zerrendatu, eta horiek iruditan azaltzea izan da, argazkilarien egitekoa: «Horrela, Felipe Gorriti gaitzat hartu dugu, adibidez, bi herrietan organo jotzaile aritu zelako. Edo Santa Maria eliza ere bai, bietan baitago». Guztira, 30 gai izoztu dituzte iruditan, eta gai bakoitzak bi argazki izango ditu; Tolosakoa bata, eta Tafallakoa bestea. Irudi pareek zubi bat ere izango dute, hitzekoa, kasu honetan, eta Emilio Latorrek idatzi ditu; «tolosa-tafallarra baita».

Erakusketa ostiraletan zabalduko dute, eta urtarrilaren 12ra bitarte izango da ikusgai.

HIRU BATEAN

T+T erakusketarekin batera, Targazki taldeak beste bi bilduma ere txertatu ditu Aranburu jauregiko proiektuan; biak ere, Asier Garagarza taldekidearen ingurukoak.

Batetik, 2017ko argizaiola sarian Garagarzak egindako lana ikusgai izango da eta, bestetik, XXXII. Espainiako Argazkilari-tza Konfederazio kongresuko lehen hiru finalisten lanak ere bilduko dituzte. Asier Garagarza irabazle suertatu da sariketa horretan eta, horrenbestez, bere argazkiekin batera, beste bi artista-renak ere Aranburu jauregian izango dira.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Errebote plazaz erakusketa zabaldu dute Villabonako Gurea aretoan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Katea ez da eten. Distintas épocas, mismos usos erakusketa, larunbata arte izango da ikusgai Gurea aretoko erakusketa gelan, 18:00etatik 20:30era. 12 panelez osatutako erakusketa pedagogikoa antolatu du udalak, azken asteetan interesa sortu duen Errebote plazaren birmoldaketa proiektuaren inguruko azalpenak emateko.

Maite Izagirre alkateak aipatu duenez, «erakusketan, momentu honetan plazak duen egoera islatzeaz gain, gobernu honek birmoldaketa egiteko dituen arazoak ematen dira. Bertan argi geratzen da, eremu publiko honi momentu honetan ematen zaizkion erabilera guztiak errespetatuko direla aurrerantzean ere». Panelek, aurrera eramango diren ekintza nagusiak erakusten dituzte, zoladuraren aldaketa, argiztapen eta elektrizitatearen hobekuntza, fatxadaren egokitzapena eta gaur egun Kale Nagusiko bistak eta argia mugatzen duen horma eraistea adibidez. Aldi berean, plazaren puntu ezberdinetatik proiektututako bi infografia egin dira, obraren ondoren eremu honek izango duen itxura aurreikusteko.

Alkateak dioenez, «panel hauek ez dituzte plazan egingo diren birmoldaketak bakarrik erakusten, eremu horren historiaren ikuspegi globala ere gehitzen du, 1812an armada frantzesak udaletxe zaharra suntsitu zuenetik gaur egun arte. Plano zaharrak erakusten dira eta eremu honen garapenerako errebote jokoa erabakigarria zergatik izan den azaltzen du».

Babarrun jatea eta bertsolariak datorren larunbatean

IRURA // Iruran sortze bidean dagoen kultura, kirola eta transmisio taldeak antolatu du eta Oihana Iguaran eta Haritz Mujika ariko dira bazkarian. Gazte Alaiak elkartearen egingo da bazkaria eta horren aurretik bisita gidatua egongo da herriko baserrietan babarrunaren prozesua ikusteko. Hitzordua, 11:00etan egin dute. Bi urtetik aurrerako umeentzat zaintza zerbitzua egongo da 15:00etatik 18:00etara.

Erosketa bonuen kanpaina jarri dute martxan Iruran

IRURA // Udalak, herriko dendari eta tabernariekin batera, abiarazi du kanpaina herriko merkataritza indartzeko. Txartelak Irurako 15 saltokitan erabili ahal izango dira abenduan eta urtarrian. 100 sorta atera dituzte eta udaletxeko harreraren daude salgai, 09:00etatik 14:00etara. 50 euroko balioa dute sortek, baina herritarrek 40 euroan erosi ahal izango dituzte. Erabilera errazteko 10 euroko 5 bonuko sorta erosi ahal izango da.

Zumarragatik Azkoitira bitarteko bidea, Aizkardirekin

AMASA-VILLABONA // Igandean, abenduak 16, Zumarragatik Azkoitirako bidean, Izazpi (973 metro) eta Zamiño (933 metro) mendiak igoko dituzte. Guztira 17 kilometroko irteera izango da, bost ordu eta erdian burutuko dutena. Olaederra kiroldegitik abiatuko dira, igandean 07:30ean. Izen emateko, Aizkardiko aretora jo beharko da, 20:00etatik 22:00etara, edo ordutegi berean, 649 71 71 82 telefono zenbakira deituta.



Joxin Azkue, Hernandorena kultur elkartearen kideak aurkeztu zuen ipuina Plazida Otaño liburutegian. J.M.

'Gu ta gutarrak' ipuina berrargitaratu dute Euskaraldiaren harira

Pello Mari Otañoren bilobak, Magdalena Moujan Otaño *Beltxa*-k, 1968an idatzi zuen ipuina berrargitaratu du Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak, elebitan

Jon Miranda Zizurkil

Matematikan doktorea, besteak beste, Argentinako Energia Atomikoaren Batzorde Nazionallean eta hainbat unibertsitateetan jardun zuen lanean Magdalena Moujan Otañok (1926-2005), Pello Mari Otañoren bilobak. Bazuen literaturarako afizioa. *Guta gutarrak* ipuinak, esate baterako, 1968ko zientzia fikziozko ipuinen sari nagusia eskuratu zuen Argentinan eta gerora, 1995ean, Jorge Luis Borges eta beste hainbat idazle handiren lanak biltzen zituen antologia batean argitaratu zuten.

Espainiako estatuan ez zuen ibilbide erraza izan, ordea. Orduko Informazio ministro frankistak, Manuel Fraga Iribarne, bahitu egin zuen ipuina, «Espainiaren batasunaren aurka egiten zuelako zuzenean». Zizurkilgo

Hernandorena kultur elkarteak ipuina berreskuratu eta bere osotasunean irakurtzeko moduan jarri nahi izan du; gaztelaniaz, Magdalena Moujan Otaño *Beltxa*-k idatzi zuen bezala alde batetik eta hil berria den Xalbador Garmendiak euskarara ekartzeko egin zuen itzulpen «dotore eta bikainaren» bidez, bestetik. Lana osatzeko, Zizurkilgo Maria Altuna Lizarraga artistak osatu ditu liburuko ilustrazioak eta hil aurretik, 2005ean, Magdalena Moujan Otañok euskarari eskaini zion gutuna ere jasota dago argitalpenaren hasieran.

Euskaraldiaren harira egin du ekarpena Hernandorena kultur elkarteak eta Zizurkilgo Udalarekin lankidetzan aleak banatuko ditu, orain, etxetik. *Aiurri* aldizkariaren harpidedunen artean ere banatuko dute ipuinaren ale bana.

WEBGUNE BERRITUA

Hernandorena kultur elkarteak webgunea berritua aurkeztu du Plazida Otaño liburutegiko balio anitzeko gelan eta Joxin Azkue elkartearen kideak aipatu duenez, atari horretan aurkitu ahal izango da, osorik, *Gu ta gutarrak* ipuina.

Atalka antolatu dute webgunea, eta besteak beste, aurretik Hernandorena elkarteak egin dituen lanak jaso dituzte bertan. Oroimen historikoaz, armariaraz, Teodosioenea etxeaz, toponimiaz edo Irizibarko karobiaz egindako lan guztiak daude bilduta.

Horrekin batera, *Zizurkil argazkitan* izeneko atalean, 25.000 argazki baino gehiagoko artxiboa kontsultatu daiteke, baita 70 bat ordu irautesen duten bideo grabazioak ere ikusi daitezke.



zozketak

Atarikideentzat **kaxa beltza** daukagu



**Errigorako
'kaxa beltza'**
Nafarroako
produktu sorta

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

Fleming herri eskolako galdarak konpondu dituzte

Galdarak konponduta, eta udalak 90.725 euroko inbertsioa egin eta gero, urteetako arazoari amaiera emango zaio

Erredakzioa Amasa-Villabona

Orain dela egun batzuk amaitu zituzten Arratzaingo Fleming Ikastetxearen berogailuak hornitzen zituen galdaren konponketa lanak. Climatizaciones Orio S.L enpresak burutu zituen lanak, eta 90.725 euroko (BEZA barne) kostua izan dute. Iragarritako lau asteko epean amaitu dituzte konponketak.

Legealdi honetan, udalak hezkuntza zentroekin, hainbat urteetako, inbertsio konpromisoaren barnean egindako lanak, hiru eremu zehatzetan garatu nahi izan ditu: lehenik eta behin, zentroaren behar berriei erantzun bat emateko, beroa ekoizteko sistema osoa birmoldatu da, bigarren, aipatutako instalakuntzaren erregulazio eta kontrol sistema berri bat ezarri da, eta azkenik, sistema elektrikoa materiaren araudi berrira egokitu da.

Hezkuntzaren ardura duen zinegotziarentzat, Ibon Ariznabarretarentzat, lan garrantzitsu horiek aurrera eramateak, udalak zentro desberdinak behar bezala laguntzeko ezarria duen inbertsioen lerroa indartzen du: «Zenbait urteetarako konpromiso tinko bat hartu genuen eta behar bezala betetzen ari gara. Honako hau izango da, baita ere, hurrengo aurrekontu eragiketetarako erabiliko den ekintza lerroa».

Larunbat iluntzeko kontzertuetara beste lau talde gehitu dira

IBARRA// Larunbatean, Kaleko Doinuak kontzertuak antolatu ditu Ibarako gaztetxean, 19:00etan. Hasiera batean, Erasoka eta Aurrez aurre taldeen kontzertuak aurreikusi zituzten, bada beste lau talde gehitu zaizkie: Estarlus, Hilotz, Revertt eta DJ Kaleko doinuak. Sarreran 5 euro ordaindu beharko dira, eta afaltzeko aukera izango da.

Espaloi berriak egiten ari dira Berrobin, segurtasunagatik

Tolosatik Berastegira doan errepidean, Berrobiko herrigunean, obrak egiten ari dira bide ertzetan irisgarritasuna hobetu eta udaletxe ataria berritzeko

Irati Saizar Artola Berrobi

Segurtasuna lehen planoan jarrita, Berrobi erdi-erditik gurutza-tzen duen errepide inguruan obrak egiten ari dira. Bide batez, udaletxe aurreko plaza ere berritu egingo dutela adierazi du Iñigo Aierza Berrobiko alkateak.

Urte batzuk atzera eginda hasi zen ideia forma hartzen. Foru aldundiak, errepide horretan ibilgailuek hartzen zuten abiadura ikusita, zebra-bide koskadunak jartzea erabaki zuen. «Orduan komentatu zen ondo egon zitekeela espaloiekin zerbait egitea, eta horrela hasi ginen».

Eliza eta mediku kontsulta lotzen dituen errepidean hutsune handia zegoen: «Oinezkoentzat ez zegoen pasabiderik, eta hor espaloi txiki bat egin dugu». Horrela, bi aldeetan espaloiak geratu dira eta segurtasun aldetik «asko irabazi» dutela adierazi du Aierzak.

Espaloia ez dela zabalegia esan du, bi aldeetan dauden eraikinek mugatu egiten dutelako, baina «ahal dutena» egin dute segurtasuna bermatzeko. «Elizara doan jendeak errepidetik ibili behar izaten zuen», eta trafiko handiko gunea dela kontuan hartuta egin dute hobekuntza. Hala, errepidearen bi aldeetako espaloiak zebra-bide baten bidez lotuta geratuko dira.

Espaloi horrez gain, udaletxe atarian dagoen plaza eta Iriarte etxearen ataria ere berritzea da asmoa: «Koskak daude, eta oi-



nezkoentzat ez dago ondo». Ere-mu osoa «berdindu» egingo dute. Bestalde, Tolosa eta Berastegi lotzen dituen autobusak udaletxe atarian egin ohi du geldialdia, eta orain arte errepide erdian geratu behar izaten zuen sartu-irtenak egiteko. Obra hauek, arazo hori kontuan hartu dute, eta geltoki bat egingo diote plaza horretan.

Urri amaieran hasi zituen obrak Sasoi Eraikuntzak S.L enpresak, eta urtarrila ingururako amaitzea aurreikusten dute. Gutxi gorabehera 160.000 euroko kostua izan dute obra lanek.



Eliz atariko espaloi berria, goian; espaloia berritzeko lanetan, behean. I. SAIZAR

Larrondoko larrealdirako izen ematea, zabalik

AMEZKETA// Behiak, zaldiak, ahuntzak eta ardiak larreratzeko epea 2019ko maiatzaren 1ean ireki eta 2020ko martxoaren 11n bukatuko da. Behorak larreratzeko epea, berriz, 2019ko urriaren 12an hasi eta 2020ko martxoaren 31ra arte luzatuko da. Bi deialditan apuntatzeko, udal bulegotik pasa behar da abenduaren 30a baino lehen.

Igande goizean irekiko dute merkatu solidarioa, Ibarra

IBARRA// Urteroko lege, Eguberri ospakizunen bezperan, merkatu solidarioa irekiko dute abenduaren 16tik 23ra Ibarako Misio Taldekoek. Ekuador, Honduras eta Indiako misioterako diru laguntzak lortzea da helburua. San Bartolome plazan dauden parrokiko lokaletan izango da azoka, 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:30era.



Kalea Berria, 19 Villabona / 943 69 26 23

Mendebaldeko Sahara, hizpide

Saharar jatorria duten lau gazte ikaztegiatarrek Mendebaldeko Sahararen egoeraren berri emango dute, bihar

Imanol Garcia Landa
Ikaztegieta

Mendebaldeko Sahara izango da protagonista Ikaztegiatarrek Udazken Kulturalako biharko ekitaldian. *Mendebaldeko sahararren borroka, historia eta istorioak* solasaldia eskainiko dute, 19:00etan hasita, saharar jatorria duten herriko lau gaztek. Udaltxeko aretoan izango da ekitaldia.

Tarba Dedah da hitzaldia emango duenetako bat, eta ekitaldia egitearena nola sortu zen azaldu du: «Pentsatu genuen aukera ematea herriari gure historia eta kultura ezagutzeko, eta

kultura batzordekoei proposatu genien eta aurrera atera da». Egun batean ezin dela dena azaldu eta «hasieratik hastea» erabaki dute, Dedah-ek dioenez: «Zer den Mendebaldeko Sahara, eta nola iritsi den gaur egungo egoerara azalduko dugu. Gerrari buruz hitz egingo dugu eta politikoki zein izan den egoera. Horrez gain, Oporrak Bakean egitasmoren berri ere emango dugu. Eta gaur egun, errefuxiatuen kanpamentuetan egunerokotasunean zer egiten duten ere azalduko dugu».

Aurrera begira beste ekitaldi bat antolatzea ere pentsatzen dute. «Mendebaldeko Sahararen



Sendabelarren ikastaroko parte hartzaileak. E. MAIZ

kulturari eta emakumearen rolari buruz beste egun batean hitz egin nahiko genuke. Izan ere, gustatuko litzaiguke gure mezua ondo iristea, eta ez informazio guztia egun batean ematea», zehaztu du Dedah-ek.

Berrogei urte pasa dira Marokoren inbasioaz geroztik, eta oraindik ere egoera horretan egotea «oso tristea» dela esan du Dedah-ek. Bestalde, oroimena aldarrikatu du: «Gazteak gara eta ez dugu ahaztu behar gure he-

rriak eta gure arbasoek zer jasan zuten eta zer jasaten duten gaur egun. Nondik gatozen ez dugu ahaztu behar eta horregatik gazteek ere borrokatzen dugu, beste modu batera, baina borrokatzen dugu».

IKASTARO ARRAKASTATSUA

Udazken kulturalaren barruan, sendabelarren ikastaroa egin zen abenduaren hasieran. Arrakastatsua izan zela esan daiteke, bertan 27 pertsona izan baitziren, tartean batzuk herritik kanpokoak. Pili Otaegi larrauldarra izan zen irakaslea eta ikastaroan sendabelarren inguruan arbasoengandik jasotako jakinduria galtzen ari dela azaldu zuen. Azalpenak jasotzeaz gain, bi ukendu eta olio bat egiteko aukera izan zuten parte hartzaileek.

Kultura batzordetik udaberri-rako ikastaro berri bat antolatze-ko asmoa azaldu dute, kanpora atera eta sendabelarrak biltzeko aukera emango duelako urtaro horretan.

Bigarren urtez antolatu dute kultur astea Abaltzisketan

Igandean hasi eta abenduaren 29a arte luzatuko da egitaraua; datorren astean egunero izango dira ekitaldiak

I. Garcia Landa Abaltzisketa

Iaz hasitako bideari jarraipena emanez, aurrean ere kultur astea antolatu dute Abaltzisketan. Igande honetan hasiko da, eta datorren astean egunero izango da ekitaldiren bat. Bukatzeko, abenduaren 29an egingo dira azken ekitaldiak. Maialen Senperena kultur asteako antolakuntza taldeko kideak azaldu duenez, «herrian saltsa gehiago sortzen da ekitaldiekin. Aurreko urtean erantzun zuten herritarrek, eta aurrean ere berriro antolatzea pentsatu dugu».

Lehenengo ekitaldia, igandekoa izango da, eta zerbait ezberdina egitea pentsatu zuten antolakuntza taldekoek: «Ibilaldi bat egitea jardura polita dela ikusi genuen», esan du Senperenak, «eta horren aitzakian pentsatu genuen Abaltzisketako mugak ezagutzea. Ea jendea animatzen

den eta goiz polita pasatzen dugun».

Herriko jende guztia erantzuko zerbait antolatzea nahi zuten kultur astearen barruan, eta besteak beste, astearte Umeen Eguna izendatu dute. «Umeei dagokinez, Oteiza-Goikoara bisita antolatu dugu. Amezketak izanik, Abaltzisketatik oso gertu dago. Pentsatu genuen asko gozatuko dutela bertan».

Bi hitzaldi antolatu dituzte, horietako bat Jose Luis Korta arraun prestatzailearekin, eta bestea Aralarri buruz, Joxean Mujika arkeologoa eta historian doktorearekin. Datorren ostegunean pintxo poteoa egingo dute eta trikitilariak ariko dira giroa alaitzen.

San Tomas egunean, Txalburu eskolako ikasleek hamaiketako eskaini eta beraiek sortu duten egutegia banatuko dute. «Argazki zaharrak eskatu dituzte eta

horiekin egin dute datorren urteko egutegia», esan du Senperenak. Gau horretan bertso zaharren afaria egingo da, Eñaut eta Unai Agirre anaiekin. Txartelak eskuratzeko Larraitx-Gain jate-txera joan behar da, eta horretarako azken eguna abenduaren 16a izango da.

Kultur asteak atsedena hartuko du, eta abenduaren 29an itzuliko da Txerri Festarekin eta mus txapelketarekin. Bertsolarien girotuko dute Txerri Festa, eta udalak txerrikiak erre eta banatuko ditu.

ARGAZKILEHIAKETA

Kultur astearen barruan antolatutako beste ekintzetako bat argazki lehiaketa da. Gaia Abaltzisketa herria bera da, argazkiak abaltzisketa_argazkiak@hotmail.com helbidera bidali behar dira, eta horretarako azken eguna abenduaren 21a izango da.



Iazko Txerri Festaren une bat. ARANTXA TOLOSA

EGITARAUA

Abenduak 16, igandea

09:00. Adin guztientzako mendi ibilaldia, plazatik abiatuta, herriko mugak ezagutzeko.

Abenduak 17, astelehena

Umeen Eguna
12:00. Amezketako Oteiza-Goikoa artetxera eta gaztandegira bisita.

Abenduak 18, astearte

20:00. Jose Luis Kortarekin solasaldia, Goibegierakinean.

Abenduak 19, asteazkena

20:00. Aralarri buruzko hitzaldia Joxean Mujika arkeologo eta historian doktorearen eskutik, Goibegierakinean.

«Batez ere herritarrei zuzendutako lehiaketa da», esan du Senperenak. Epaimahaia zehaz-

Abenduak 20, osteguna

19:00. Pintxo poteoa herriko bitabernetan eta Larrunarri elkartean.

Abenduak 21, ostirala

11:00. Txalburu eskolak eskainitako hamaiketako eta egutegiaren bana-keta herriko plazan.
20:30. Bertso zaharren afaria Eñaut eta Unai Agirrerekin, Larraitx-Gain jatetxean.

Abenduak 29, larunbata

11:00. Txerri Festa, bertso doinuez alaiturik.
16:00. Eguberrietako mus txapelketa Larrunarri elkartean. Bikotean batek gutxienez herrikoa izan behar du. Izen ematea 15:30etik hasita.

tuko dute eta sari bat banatuko da, oraindik ez dena guztiz erabaki zer izango den.

Hasiera ikusgarriaren ondoren, final itxurako finalerdien txanda

Final-laurdenetako partidak ostiralean eta larunbatean jokatu dira Villabonako Bearzana pilotalekuan; 19:00etan eta 11:00etan hasiko dira esku pilota jaialdiak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Hasiera bikaina izan zuen pasa den ostiralean VII. Antton Pebeten oroimenezko txapelketak. Lehen partidari, Maiz billabonatar eta Behar Zanakako pilotariak, Aldabe nafarrarekin batera iazko txapeldunorde izan zen Zezeaga bergararra eta Zubiria berrobatarren aurka irabazi zuten. Emaizta 22-17koa izan zen eta partida bizia eta ikusgarria ikusi zen Bearzana pilotalekuan, batez ere atzeko koadroetan. Zezeagak golpe ikusgarria erakutsi zuen eta Aldabek guzti hura eusteko gaitasuna eta aldi berean eskuin bizia plazaratu zuen. Aurrean, Maizek, batez ere lana eta defentsa ezarri zituen eta Zubiriak tanto ederrak egin bazituen ere akats gehiago egin zituen. Partidaren gakoa hortxe izan zen: bikote irabazleak huts gutxiago egin zituen.

Horrela, Maiz eta Aldabe final-laurdenetarako sailkatu ziren eta beraien partida ostiralean

izango da, abenduaren 14an, 19:00etan Asteasuko Urbietaren (iazko txapelduna) eta Bikuña donostiarraren aurka. Atzelariak laster Aspe enpresarekin profesionaletara jauzia egingo du.

Bigarren partidak emoziorik ere ez zuen falta izan. 22-20 izan zen azken emaitza eta irabazleak 19-20 galtzen ere joan ziren. Salaberria goizuetarrak eta Balerdi antzuolarrak irabazi zuten iazko txapeldunorde geratu zen Hernaniko Arrieta (lauretan onena) eta Esnaola txaramarraren eta Behar Zanakako pilotariaren aurka.

Balerdik eskuinarekin pilota ederki astindu zuen eta Salaberriak aurrean pilota harrapatu zuenean ongi amaitu zuen, tanto bikainak eginez. Arrietak partidaren zama hartu zuen eta defentsan zein erasoan lan handia egin zuen. Lauretan onena izan zen, maila handiko pilotaria dela erakutsiz. Profesionaletara gutxiago jokatu pasa dira makina bat pilotari.

Esnaolak berriz, pilota zailak eraman zituen eta aurrean, aurrelari onenaren gisan, bi tanto eder egin zituen. Atzetik joan ziren markagailuan galtzaileak baina partidaren erditik aurrera, hutsak gailendu ziren Balerdi eta Salaberriaren artean eta Arrieta eta Esnaolak 20-19 aurretik jar-tzea lortu zuten.

Azkenean, partida irauliz gorri jokatu zuten pilotariak pasa ziren final-laurdenekoetara. Hauek ere datorren ostiralean jokatu dute eta bikote gogorra izango dute zain: Eneko Labaka eta Telletxea albizturtarrak.

FINAL-LAURDENAK, ASTEBURUAN

Antton Pebeten oroimenezko binakako esku pilota txapelketaren final-laurdenak ostiralean eta larunbatean jokatu dira Villabonako Bearzana pilotalekuan. Txapelketaren une gozoa izango da, pilotari guztiak sartuko baitira jokoan. Gauzak horrela, partida ikusgarriak geratu dira bi egun horietarako.

Ostiraleko jaialdia 19:00etan hasiko da, eta bi final-laurden ikusteko aukera egongo da. Lehen partida Urbietta-Bikuña eta Maiz-Aldaberen artekoa izango da. Aurreko fasetik datorren bikoteak ezustekoa ematen jarraitu nahiko du, baina aurrean izango duen bikotea txapela irabazteko faboritoetako da.



Xabi Urbietta asteasurak ostiralean jokatu du Villabonan. A. IMAZ

Bigarren partidari Eneko Labaka eta Xabier Telletxea sartuko dira txapelketan. Salaberria eta Balerdi izango dituzte aurkari. Partida oso arriskutsua izango da, bi bikote handi baitira.

Larunbatean, 11:00etatik aurrera, beste bi final-laurdenak jokatu dira Bearzanan. Lehenengo lehian Santxo-Lizeagak Exposito-Alduntzini egingo diote aurre. Ikuskizuna aurrean ziurtaturik dago, afizionatuen mailan bi puntako aurrelari direlako.

Bigarren partidari eskualdeko beste ordezkari bat egongo da, Peru Labaka zizurkildarra. Aurrelari artista da eta Elizegi lagun duela Apezetxea-Murgiondoren

aurka egin beharko du. Larunbatekoa ere jaialdi ikusgarria geratu da, beraz.

FINALERDIAK ETA FINALA

Abenduaren 23an, igandean, Pebeten oroimenezko finalak erabakita geratu dira. 11:00etatik aurrera jokatu dira bi finalerdia.

Txapelketa erabakita utziko duen partida, berriz, abenduaren 29an jokatu da, 17:30ean hasiko den pilota jaialdi bikain batean. Festa joko-garbiko partida ikusgarri batek hasiko du, munduko pilotari onenekin. Emakumeak izango dira protagonista ondoren. Finala, azken partida izango da.



Peru Labaka zizurkildarrak Elizegirekin osatuko du bikotea. ATARIA

ZUZENEAN

Artola-Mariezkurrena II
Vs
Irribarria-Zabaleta

Abenduak 13,
osteguna, 17:30ean
zuzeneko irratsaioa
Urretxuko Ederrena
pilotalekutik

ataria
irrati 107.6 fm
www.ataria.eus



OSTEGUNA, 2018KO ABENDUAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Pello Errotari buruzko saio berezia, Asteasun

‘Pello Errota, zintzokeria aberkoiaren biktima’ Koldo Izagirre, Amaia Agirre eta Haritz Mujikak eskainiko dute

Jon Miranda Asteasu

Pello Errotaren mendeurren ekitaldietan azkena izango da abenduaren 14koa, biharkoa, Asteasun. Koldo Izagirrek bertsolaria-ri buruzko *Pello Errota, zintzokeria aberkoiaren biktima* saioa eskainiko du, Amaia Agirre eta Haritz Mujika bertsolarien laguntzarekin. Saioa udaletxean izango da, 22:00etatik aurrera hasita.

Sagardotegiak bertsolarien unibertsitateak zirela esan izan da eta bertan ziria, iraina, burla, iseka, ofentsa eta zatarkeria zirela ohiko. Joko horietan Pello Errota bikain aritzen zen. Biharko saio berezian hori izango dute aztergai. «Bertsogintza hura lokaztegiatiko kontua zela predikatu zuten bertsolaritza moralistak eta zintzokeria aberkoiak, ki-ratsa omen zerien bertso haiei», esan dute antolatzaileek, saioaren inguruan.

«Horrela baztertu zen Pello Errota eta haren hitzetik hortzerako txinparta, Pello Errota herri xehearen sormena baitzen, gauza desegokia, pentsamendua



Pello Errota asteasuarrari buruzko saioa, bihar, 22:00etan. ATARIA

ondu gabeko bat-batekotasun arriskutsua. bertsoa neurritan errenditzeko gauza ez zela ere zabaldu zuten. Denak balio izan zuen satira isilarazi eta sermoiarri ekiteko», gaineratu dute.

Pedro Jose Elizegi Maiz, *Pello Errota* ezizenez ezagutua 1840. urtean jaio eta 1919an hil zen. Lanbidez errotaria izan zenari buruz gehiago jakin nahi duenak, Asteasun du aukera.

OSTEGUNA 13

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Maite Franco ipuin kontalaria-riak eskainiko du saioa, HH2-HH3ko haurrentzat, liburutegian, 18:00etan.

Ikaztegieta. Euskaraldian izena eman dutenei dei egiten zaie udale-txeko areto nagusira gerturatzeko galdeketa txiki bat osatzera, 18:30ean. Soziolinguistika Klusterrak ikerketa bat egin nahi du, eta Ikaztegieta aukeratu dute. Euskal Herriko 30 herrietako bat izango da.

Tolosa. Inauteriak lantzen hasteko bilera izango da txarangekin egingo dutena, 19:00etan, kultur etxean.

Tolosa. *Burning* filma Leidorreko Zine forumean. Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin, 19:15 eta 21:45ean.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde-rik.

16:30. Gaurkoan egia antzezlan.

17:30. Gaurkoan Tolosalde-rik.

21:30. Gaurkoan Tolosalde-rik.

22:00. Ikusi irrati.

23:00. Amaia DJ.

23:30. Gaurkoan Tolosalde-rik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Etxebeste, J. M. Gernikako Arborearen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

Gauko. Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, gazte eta helduekin solasaldia, Joxemi Sainzarrekin eskualdeko pertsonaia, Quark zientzia atala eta artearen txokoa Oskar Tenarekin.

11:00. Hamaiketako. Alegialdea.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

17:30. Zuzenean Artola-Mariezku-rrena II eta Irribarria-Zabaletaren arteko pilota partida.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Negu ukitua hartuko du. Egun osoan hodei ugari eta hodei hauek euria mar-dulutziko dute. Haizeak goizean goiz hego-mendebaldeko ukitua eta goiz erditik aurrera ipar-mendebaldeko norabidea hartuko du. Temperatura maximoak goizean: 9-10°. Egunean zehar hoztu egingo du eta egun amaieran 6-7°. Elur-mailak behera egin eta 1100-1200 metroan kokatuko da arratsaldean.

Bihar. Eguraldi kaxkarra, nahiz eta arratsaldean hobera egin. Eguerdialdera arte, ipar-mendebaldeko haizearekin, euri zaparrada batzuk. Arratsaldean pixkana haizea hego-mendebaldeko ukitua hartzen hasiko da eta atertzen hasi eta ostartetxo batzuk irekiko dira. Termometroa 8-10°tan eta goizean elur maila 1200 metroan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU
www.tolosakobabarruna.eus
Tel.: 943 65 02 53

